

Irakaskuntza eztabaidagai Adarraren Pedagogi Ihardunaldietan Bilbon

Adarraldien helburua euskal irakaskuntzak bizi duen egoera sakontzea da

Irakaskuntza sistema erreforma atarian dagoen une honetan. Euskal Autonomi Elkarte (EAE) irakaskuntzak bizi duen egoera sakontu nahian Adarra talde pedagogikoak ikasturte hasierako Ihardunaldi Pedagogikoak —Adarraldiak— antolatzen ditu aste honetan zehar Bilbon.

G.A. / BILBO

Astebeteko ihardunaldi hauekin Adarra taldeko partaideek irakasleen eztabaida, hezkuntza eta topagune ekintzak bultzatu nahi dituzte. Euskal irakaskuntzaren munduak bizi beharko duen aldaketa zaila aztertzeke asmoz Adarrakoek hiru zatitan banatu dituzte aurtengo Adarraldiak; hitzaldiak, erakusketa eta ikastaroak.

Atzo hasi ziren ikastaroak datoren larunbaterarte burutuko dira arratsaldero zortzietatik aurrera Bilboko Juan Larrea erakustaretoan. Catalunya Pedagogiaren Berrikuntza Mugimenduen Federakundeko lehendakariak hasiera eman zien atzo hitzaldi hauei 'Hezkuntza: Europara hurbiltzen ari gara?' gaiaz.

Gaur, berriz, Angel Perez Malagako Unibertsitateko irakaslea 'Ikastetxearekiko lotura eta katedra askatasuna, gatazka?' gaiaz. Asteazkenean, Alvaro Marchesi ME-



Irakaskuntzaren zenbait arlo aztertuko dute Adarraldiak.

Ceko Pedagogi Berrikuntzako zuzendariak hitzaldi bat emango du 'Batxilergoak' lemapean. 'Asko ikasi ala ondo ikasi?' izango da Josetxo Linaza Madrileko Unibertsitate Autonomoko irakasleak emango duen hitzaldia.

Miguel Fernandez Madrileko Complutense Unibertsitateko irakasleak 'Ebaluatu ala aukeratu egiten dugu?' gaia jorratuko du ostiralean. Larunbatean, azkenik, goizeko 10etan Anton Borja EHUKo irakaslearen txanda izango da eta 'Ekonomi, teknologi eta kualifikazio aldaketak 80. hamarkadan; bere eragina profesionaltasunean' landuko du. Hitzaldien atalari bukaera emango diote egun berean, eguerdiko hamabietan egingo duten mahainguru ba-

tekin, bertan irakaskuntzako sindikatu eta Eusko Jaurilaritzako Hezkuntz saileko gonbidatuek 'Egitasmoak, proiektuak, proposamenak... 91-92 ikasturterako' gaia eztabaidatuko dute.

Aurtengo Adarraldien bigarren zatia Juan Larrea erakustokian jarritako erakusketak osatzen du. Goizeko hamaiketatik ordubatak 1'erdietara eta arratsaldeko seietaetik hitzaldiak bukatu arte zabalik izango den erakusketan 'Europako hezkuntz sistema ezberdinen' berri ematen da. 3. atala irakasleei mugatua dago, eta Adarraldi hauetan hezkuntz gai ezberdinen eztabaida eta esperientziak aztertuko dira arratsaldero Miguel de Unamuno Institutuan eratuko dituzten ikastaroetan.

Ikastolak

Hezkuntzak eta Ikastolek aurreakordioa zehaztuko dute gaur

DONOSTIA

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak eta Ikastolen Elkarteko ordezkariak aurreko egunetan akordutako puntuak zehaztuko dituzte gaur Lakuan. Batzarra lan bilera izango da eta beraz ez da erabakiorra izango.


Alde biak ostegun arratsaldean elkartu ziren eta zazpi ordu luzez uda aurretik konpontzeke zeuden aferez hitzegin zuten. Azkenean aurreakordio batera heldu ziren. Adostasun honetan iazko zorrak —1.300 milioi pezeta— konpontzea sartu zen, baita aurtengo finantzaketa bideak aurkitzeko irizpideak ere.

Hitz hauek paperean jarri beharko dira gaurko lan bileran, «literaturan» Ikastoletako Federazioaren iturriek EGUNKARIARI atzo bertan adierazi ziotenez. Honen arabera, gaurko ihardunaldia «lan teknikoa» izango dela azpimarratu zuten iturri berberak. Ostegunean onartutako konzertuak «zehaztu» egingo dira,

«prestaketa lana izango da». Gaurko lan bilera bi taldetan banatuko da. Hezkuntza eta Federazioaren aldeko azalduko diren partaideak. Batez beste, Inaki Etxezarreta Federazioko gabezia eta Mikel Olaziregi kontu larioidea izango dira; eta bestean, de bakoitzeko ordezkariak ihardunaldia go dute.

Gaurko lana amaituta, beste bileren baten eguna zehaztuko da, airean dauden arazo bakarrik eztabaidatzeko. Afera hau zenbait ikastolak BBE irakatsi ahal izateko baimenaren alde. Ikastolek hamahiru zentruentzako baimena eskatu dute baina Hezkuntza seiri baino ez die eman nahi. Oliveri sailburuak ostiralean bertan esan zuenez.

Ikastolen ordezkariak adierazi bezala, «hobe da negoziaketak egitea dauden ez esatea, oztopatu egin lezak keelako elkarriketa hauen garapena. Gu horretan geratu ginen esandaskoa bete egingo dugu gaurko zailago ez jartzeko».



Inazio Oliveri, Hezkuntza sailburua.

CARLOS VILLALBA

Telebistak arautzeko legea 1992ko uda baino lehen

L.K.G. / SANTANDER

Espainiako arautegia Europakoari egokitzearen, telebistaren igorpenerako sistemen legea datorren urteko uda baino lehenago onestea nahi du Jose Borrell Garraio eta Herrilari ministroak. Santanderren komentatu zuen atzo eta 1993ko urtarilla aurretik, «argia, malgua eta ziurra» izan behar duen marko arautzailea sortu beharko dela adierazi zuen, arautegi espainolak aurrirakusten dituen erabakiak garatzeko.

Borrell-ek aipatu zuenez, Estatua eta Telefonikaren arteko kontratua berriztatzea, Telekomunikazio Plan Nazionalaren aurkezpena eta Telekomunikazio Legearen gaurkotzea dira laster hartu beharreko neurriak, urte amaieran egingo dituztenak.

Kablez, satelitez eta potentzia gutxiko telebista arautzeko legeko proposamen batean «jo ta ke» dihardutela komentatu zuen, 1992ko uda baino lehen onartuta izateko.

Kontseilariak baino gehiago irabazi zuten goi mailako kargu publikoek

GASTEIZ

Eusko Jaurilaritzako kontseilari batek baino gehiago irabazi izan zuten goi mailako zenbait kargu publikoek 1988. urtean, Euskal Kontu Publikoen Epaitegiak atzo aditzera eman zuenez.

Erakunde horren txostenaren arabera, EITB, Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Zerbitzua eta Euskal Energiako goi karguek kontseilariak baino gehiago kobratu zuten, nahiz eta legeak espreski debekatzen duen hori. 1988ko aurre-

kontu Legeak 21. artikulua dioenez, zerbitzu publikoetako gai mailako karguek ezin dute Eusko Jaurilaritzako sailburu batek baino gehiago irabazi.

Hori ezezik, goi mailako karguek ordaindu beharreko zerga guztiak ez zituztela ordaindu ere agertu du Kontu Epaitegiak. Izan ere, PFEZri zegozkion kenketak ez zituzten egin goi mailako karguen diru sariak pagatzerakoan. 1988. urtean Administrazioak ez zizkien egin legeak agintzen dituen kenketak postua utzi eta berriro hartu zuten karguei.

Bilboko udal kirol monitoreak protestan kontratua lortzeko

BILBO

Bilboko Udaleko monitore talde batek kontratuak berritzea eskatu zuten atzo La Casilla kiroldegiko terrazan lanean bizi izan duten «egoera irregularra» salatuz. Igardien ekainean aurkeztu zuten Bilboko Gizarte Epaitegian eta epaiketaren lehen eguna hilaren 24ean izango da.

«Aspalditik gaude egoera irregularrean, urtero udaren kontratua amaitzen zitzaigun ondoren berriro kontratua lortuz, baina aurrean gai-

nontzeko langileen egoera berbera eskatu dugunean kontratua ez berriztatzea erabaki dute», azaldu zuten zazpi monitore ohiek. Protesta ekintzak uztailaren hasi zituzten «Gue-dan» kirol zerbitzu enpresak subkontratutako eta Udalak zuzenean kontratatutako arteko berdintasun egoera eskatuz soldata eta eskubi-deen arloetan. Monitoreek bi demanda ezarri zituzte Kirol Udal erakundea eta enpresa subkontratatzaileraren aurka. Bihar hasiko dira monitoreak lan inspektzioan deklaritzen.

Osasuna

Osasun langile eta drogazaleek hepatitis B-a harrapatzeko arriskua dute

BILBO

Osasun munduko langile, drogazale eta beraien sexu harremanetan garbitasun kontrol eskasa duten pertsonen hepatitis B-a harrapatzeko aukera gehiago ditzuzte. Gaixotasun honek Estatu espainoleko hiritarren %1,2 eta %2rengan du eragina eta intzidentzia handiagoa da gizonezkoengan. Horrela adierazi zuen atzo Vicente Carreño Madrileko Jimenez Diaz Fundazioko hepatologoak eta hepatitisaren ikerkuntza adituak.

Carreñoak azaldu zuenez, «Estatu espainolean hepatitis Baren portzentaia oso garrantzitsua eta altua da Alemania eta Britainia Handiko kasu klinikoekin konparatzen baldin badugu. Dena den, portzentaia Italiakoa baino baxuagoa da, herrialde honetan hiritarren %4k gaixotasun hau pairatzen bait du kutsaturik izanagatik».

Hepatitis B-aren presentzia antzekoa omen da Estatu espaino-

leko elkarte autonomo ezberdinetan, diferentziak eskaxak bait dira. Hala ere, gaixotasun honek gizonezkoengan duen eragina azpimarratu zuen behin eta berriz Carreñoek, gaixoen %50 baino gehiago gizonezkoa delako.

Honen arrazoiak Madrileko hepatologoaren esanetan ezezagunak diren arren, Carreñoek bi azalpen posible azpimarratu zituzten: alde batetik, sistema immunologikoa; eta bestetik, gizonezkoen defentsa emakumezkoena baino ahulagoa izatea.

Hepatitis Baren transmisioa ekiditzeko metodorik eraginkorrena txertoa dela adierazi zuen doktoreak. Arlo honetan Estatu espainolean arrisku handia duten pertsonengan txertaketa kanpaina bat egin dela azpimarratu zuen.

Carreñoek esan zuenez, Estatu espainolean hepatitis Baren ikerkuntza maila «oso altua» da eta bere hitzetan «kasu larrien %95 osatu egin da, baina hepatitis kronikoa bada berriro gaixotzeko arriskua %15ekoa da».